Zarauzko Udala

ZERBITZU KONTRATUA PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATU BIDEZ ADJUDIKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGOS DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SUPER SIMPLIFICADO**
INFORMAZIOAREN ETA ZERBITZUEN SEGURTASUNAREN ARLOKO EGOKITZAPEN-ZERBITZUA **2025IK210009** **1. SARRERA** ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ARLOKO SEGURTASUNA Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak Segurtasun Eskema Nazionala sortzeko beharra ezarri zuen. Eta hori Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan garatu zen. Aurreko hori indargabetu ondoren, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Segurtasun Eskema Nazionala jasotzen du 156. artikuluaren 2. atalean. Helburua da lege horretan aipatzen diren bitarteko elektronikoak erabiltzean aplikatu beharreko segurtasun-politika zehaztea, gizarteak konfiantza izan dezan administrazio elektronikoaren garapenean eta administrazioan egiten den tresna informatikoen erabileran. Gaur egun, maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak arautzen du Segurtasun Eskema Nazionala (aurrerantzean, SEN). 2018az geroztik, Zarauzko Udala lanean aritu da erakundea Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren parametroetara egokitzeko (gaur egun indargabetuta dago), hainbat mugarri finkatuz eta araudiaren eskakizunak betez. Hala ere, indarrean sartu berri den Segurtasun		**SERVICIO DE ADECUACIÓN EN MATERIA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN Y LOS SERVICIOS** **2025IK210009** **1. INTRODUCCIÓN** SEGURIDAD EN EL ÁMBITO DE LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, estableció la necesidad de crear un Esquema Nacional de Seguridad, desarrollado por el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica. Una vez derogada, la posterior Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, recoge el Esquema Nacional de Seguridad en su artículo 156 apartado 2 en similares términos, con el objeto de determinar la política de seguridad que se ha de aplicar en la utilización de los medios electrónicos a los que se refiere la citada ley de cara a establecer la confianza de la sociedad en el desarrollo de la administración electrónica y uso de herramientas informáticas en la administración. En la actualidad, el mencionado Esquema Nacional de Seguridad se regula en el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad (en adelante, ENS). Desde el año 2018, el Ayuntamiento de Zarautz ha ido trabajando en la correcta adecuación de la entidad a los parámetros exigidos por el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad (actualmente derogada), realizando diversos hitos y dando cumplimiento a las diversas

Eskema Nazionalaren maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak aurreko araudia eguneratu egin du, eta eskakizun berriak eta hainbat aldaketa sartu.		exigencias de la normativa. No obstante, la entrada en vigor del Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad ha actualizado la normativa previa, incluyendo nuevas exigencias y diversas modificaciones.
Gaur egun, Zarauzko Udalak daukan segurtasun-politika indargabetuta dagoen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren araberakoa da (Segurtasun Eskema Nazionalarena).		A día de hoy, el Ayuntamiento de Zarautz tiene realizada la política de seguridad conforme a las directrices del derogado Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.
Horri dagokionez, beharrezkoa da Zarauzko Udalak araudiak, politikak eta barne-prozedurak nahiz ezarritako segurtasun-neurriak eta/edo kontrolak araudi berriaren eskakizunetara eguneratzea. Horretarako, aldez aurretik, diagnostiko konparatibo bat egingo da egungo egoeraren eta indarrean dauden betebehar berrien artean. Gainera, beharrezkoa da prozesuan Zarautz Lur SAU sozietatea ere sartzea.		A este respecto, resulta necesario que el Ayuntamiento de Zarautz actualice tanto las normativas, políticas y procedimientos internos como las medidas de seguridad y/o controles instaurados a las exigencias de la nueva normativa, lo cual requerirá un diagnóstico comparativo previo del estado de situación y de las nuevas obligaciones vigentes. Asimismo, resulta necesario incluir en ese proceso a la sociedad Zarautz Lur, S.A.U.
2. KONTRATUAREN XEDEA		**2. OBJETO DEL CONTRATO**
Agiri honetan oinarrituta, egiten den kontratuaren xedea da aholkularitza-zerbitzua ematea, informazio eta zerbitzuen segurtasunaren arloko legedira egokitzeko, bereziki, Segurtasun Eskema Nazionalaren legeriara egokitzeko.		El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la prestación del servicio de consultoría para la adecuación a la legislación en materia de de seguridad de la información y los servicios, y en particular, en materia de Esquema Nacional de Seguridad.
3. SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALAREN ARLOKO LEGEDIRA EGOKITZEKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA		**3. CONSULTORÍA PARA LA ADECUACIÓN A LA LEGISLACIÓN EN MATERIA DE ESQUEMA NACIONAL DE SEGURIDAD**
3.1 Helburuak:		**3.1 Objetivos:**
Aholkularitza-zerbitzuaren helburua da aholkuak eta laguntza ematea Zarauzko Udalean eta Zarautz Lur SAUn Segurtasun Eskema Nazionala ezartzeko, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan edo unean-unean indarrean dagoen araudian jasotako lege-xedapenak betez.		El servicio de consultoría pretende ofrecer asesoramiento y asistencia en la implantación del Esquema Nacional de Seguridad para el Ayuntamiento de Zarautz y Zarautz Lur, S.A.U. en cumplimiento de las disposiciones legales recogidas en el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad, o la normativa vigente en cada momento.
Kontratuaren helburu nagusia da behar diren ekintzak egitea Zarauzko Udalari Segurtasun		Como objetivo principal del contrato se encuentra la realización de las acciones

Eskema Nazional (SEN) berria inplementatzen eta egokitzen laguntzeko. Horretarako, lan-plan bat egingo da, Udalak eta Zarautz Lur SAUk babes egokia izan dezaten tratatutako informazioan eta beren aplikazio-eremuan emandako zerbitzuetan, eta erantzukizun proaktiboaren ebidentziak eman ditzaten, SENaren oinarri diren printzipioak berrikusiz.		necesarias para asistir al Ayuntamiento de Zarautz en la implementación y adecuación del nuevo ENS, realizando un plan de trabajo para que el Ayuntamiento y Zarautz Lur, S.A.U. puedan mantener una protección adecuada de la información tratada y los servicios prestados en su ámbito de aplicación, y ofrecer evidencias de la responsabilidad proactiva mediante las correspondientes revisiones de los principios que fundamentan el ENS.
3.2 Zereginak eta jarraitu beharreko prozedura: Zeregin hauek izango ditu: 1. Proiektua planifikatzea eta kontrolatzea. Enpresa adjudikaziodunak Zarauzko Udalerako eta Zarautz Lur SAUrako egokitzapen-lanen plangintza bat proposatu eta adostu beharko du izendatutako solaskideekin. Plangintzak bi urteko kronograma jasoko du, eta hor adieraziko dira bete beharreko faseak, fase bakoitzean entregatu beharrekoak, jarraipen-mugarriak eta egokitzat jotzen den beste edozein elementu. Enpresa adjudikaziodunak fase bakoitzean jarraipen-txostenak egingo ditu, eta Udalari emango dizkio planifikatutako jarraipen-mugarrietan, ezarpenaren aurrerapenaren xehetasunekin. 2. Segurtasun Eskema Nazionalera egokitzea. Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak edo unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatutako parametroetara egokituko da erakundea. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak Zarauzko Udalaren eta Zarautz Lur SAUren egoeraren hasierako diagnostiko bat egingo du, eta, SENera zenbateraino		**3.2 Tareas y procedimiento a seguir:** Las tareas consistirán en: 1. Planificación y control del proyecto. La empresa adjudicataria deberá proponer y acordar con los interlocutores designados una planificación de las tareas de adecuación para el Ayuntamiento de Zarautz y Zarautz Lur, S.A.U. La planificación incluirá el cronograma de dos años con las diferentes fases a acometer, entregables en cada fase, hitos de seguimiento y cualquier otro elemento que considere adecuado. La empresa adjudicataria elaborará y facilitará al Ayuntamiento en cada fase informes de seguimiento en los hitos de seguimiento planificados, con los detalles del avance de la implantación. 2. Adecuación al Esquema Nacional de Seguridad. Se procederá a la adecuación de la entidad a los parámetros exigidos por el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad, o por la normativa vigente en cada momento. Para ello, la empresa adjudicataria realizará un diagnóstico inicial de la situación del Ayuntamiento de Zarautz y de Zarautz

egokitzen den eta erakundeak arriskuekiko duen esposizioari buruz bildutako informaziotik abiatuta, Segurtasuna Hobetzeko Plan bat garatuko da, SENera egokitzeko ibilbide-orria definitzeko. Era berean, enpresa adjudikaziodunak Egokitzapen Plan bat proposatu beharko du. Bertan, SEN betetzen dela bermatzeko hobekuntza-proiektuak, ekimenak eta aukerak definituko dira, bai eta horietako bakoitza gauzatzeko denboraren plangintza ere. Azaldutakoaren arabera, fase honetan honako dokumentazio, neurri eta betetze-prozedura hauek berrikusi eta, hala badagokio, prestatu beharko dira: • Segurtasun Politika • Segurtasun rolak eta figurak • Pleguen eta kontratuen ereduak • Gertakarien jakinarazpenak • Hobekuntza plana Hala ere, kontratua gauzatu bitartean beharrezkotzat jo daiteke beste agiri osagarri batzuk berrikustea edo egitea. 3. Neurriak eta kontrolak ezartzea Araudia egokitzeko beharrezkoak diren zereginak zehaztu eta zuzenduko dira, eta Zarauzko Udalari eta Zarautz Lur SAUri aholkuak emango zaizkie SENaren II. eranskineko neurriak eta kontrolak ezartzeko. Horretarako, neurriak eta kontrolak ezartzeko lehentasun bat ezarriko da, eta ezarpena teknikoki gauzatzeko ardura duten pertsonei zuzenduko zaie. Beharrezkoa bada, neurriak eta kontrolak ezartzeko prozesuan zehar beharrezkoak diren eta planteatzen diren protokoloak eta prozedurak egiteko laguntza ere emango da.		Lur, S.A.U. y, a partir de las informaciones recopiladas sobre el grado de adecuación al ENS y la exposición de la organización a los riesgos, se procederá a desarrollar un Plan de Mejora de Seguridad, para definir la hoja de ruta para la adecuación al ENS. Asimismo, la empresa adjudicataria deberá proponer un Plan de Adecuación que contemplará la definición de proyectos, iniciativas y oportunidades de mejora para garantizar el cumplimiento del ENS, y la planificación temporal de ejecución de cada una de ellas. En virtud de lo expuesto, en esta fase se deberán revisar y, en su caso, elaborar la siguiente documentación, medidas y procedimientos de cumplimiento: • Política de Seguridad • Roles y figuras de seguridad • Modelos de pliegos y contratos • Notificaciones de incidentes • Plan de mejora Todo ello sin perjuicio de que durante la ejecución del contrato se considere necesaria la revisión o elaboración de otra documentación adicional. 3. Implantación de medidas y controles Se determinarán y dirigirán las tareas de adecuación normativa necesarias y se asesorará al Ayuntamiento de Zarautz y a Zarautz Lur, S.A.U. en la implantación de las medidas y controles del anexo II del ENS. Para ello, se establecerá la prioridad de implantación de medidas y controles y se dirigirá a las personas encargadas de ejecutar técnicamente la implantación. Si fuera necesario, se asistirá en la elaboración de protocolos y procedimientos que fueran necesarios y se planteen durante el transcurso del proceso de implantación de medidas y controles.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak honako zerbitzu hauek emango ditu: lege aholkularitza eta laguntza, zalantzei eta kontsultei erantzutea, aholkularitza eta gomendioak honako gai hauei buruz: segurtasun-neurriak ezartzeko arau-eskakizunak, gaur egun ezarritako neurriak, arazo zehatzak, etab. Fase honetan honako hauek entregatuko dira. • Araudi berriaren esparruan eguneratutako dokumentazioa eta prozedurak. • Neurri eta kontrol berrien ezarpenak eragindako prozeduren eguneratzea. • Aholkularitza, jarraibideak eta gomendioak, segurtasun-neurri berrien arabera. 4. Auditoriak 4.1. Segurtasun Eskema Nazionala betetzeari buruzko barne-auditoria. Enpresa adjudikaziodunak barne-auditoria bat egingo du urtero. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak auditoria hori egiteko metodologia ezarriko du, eta honako hauek adieraziko ditu: haren itemak eta irismenak, berrikusi beharreko sistemak, SEN betetzeko politikak, araudiak eta prozedurak aplikatzeko metodologia, etab. Fase honetan honako hauek entregatuko dira. • Auditoria plana • Auditoria txostena Informazioaren Segurtasunari buruzko ikuspegi globala duen laguntza teknikoa behar da, segurtasuna hobekuntza-zikloko prozesu gisa hartuta. Horretarako, etengabe berrikusi eta hobetuko		Asimismo, la empresa adjudicataria prestará servicio de consultoría y asistencia legal, atención de dudas y consultas, asesoramiento y recomendaciones en relación con: exigencias normativas en la implantación de medidas de seguridad, medidas actualmente implantadas, problemáticas concretas, etc. Los entregables de esta fase incluirán: • Documentación y procedimientos actualizados en el marco de la nueva normativa. • Actualización de procedimientos afectados por la implantación de las nuevas medidas y controles. • Asesoramiento, directrices y recomendaciones en virtud de las nuevas medidas de seguridad. 4. Auditorías 4.1. Auditoría interna de cumplimiento del Esquema Nacional de Seguridad. La empresa adjudicataria realizará una auditoría interna con carácter anual. Para ello, la empresa adjudicataria establecerá la metodología de realización de esta auditoría, indicando los ítems y alcances de la misma, los sistemas a revisar, la metodología de aplicación de las políticas, normativas y procedimientos para el cumplimiento del ENS, etc. Los entregables de esta fase incluirán: • Plan de auditoría • Informe de auditoría Se requiere de una asistencia técnica con visión global de la Seguridad de la Información tomando la Seguridad como un proceso de ciclo de mejora, mediante la revisión y mejora

dira (i) denboran zehar garatu eta hobetu behar diren segurtasun prozesu, prozedura eta/edo jarraibide teknikoak, (ii) administrazio elektronikoko zerbitzuen aurrerapena, (iii) zerbitzu horiek babesten dituzten azpiegiturak, (iv) bilakaera teknologikoa eta (v) ziberespazioan jardutearen ondoriozko arriskuak. Auditoria-txostenak ondorioztatzen badu neurri edo kontrol gehigarriak ezarri behar direla, ziurtapen-auditoria egin aurretik ezarriko dira. Ezarpen horri beste barne-auditoria bat egingo zaio.		continua de los procesos, procedimientos y/o instrucciones técnicas de seguridad, que se deben desarrollar y perfeccionar a lo largo del tiempo, en paralelo al progreso de los servicios de Administración electrónica, las infraestructuras que los apoyan, la evolución tecnológica y los riesgos derivados de operar en el ciberespacio. En caso de que el informe de auditoría concluya que es necesario la implantación de medidas o controles adicionales, se llevará a cabo dicha implantación con carácter previo a la auditoría de certificación. Dicha implantación será objeto de una nueva auditoría interna.
4.2. Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtapen-auditoria Enpresa adjudikaziodunak laguntza emango du ziurtapen-auditoria egiteko. Auditoria hori kanpoko erakunde batek egin behar du. Horren kontratazioa adjudikazio honen eremutik kanpo geratuko da. Prozesu hori kontratuaren iraupenaren bigarren urtean egingo da, eta, bi luzapen izanez gero, laugarren urtean. Fase honetan honako hauek entregatuko dira. • Laguntzaren proposamena		4.2.Auditoría de certificación del Esquema Nacional de Seguridad La empresa adjudicataria prestará apoyo y acompañamiento para la realización de la auditoría de certificación, a realizar por una entidad externa, cuya contratación queda al margen de la adjudicación de ésta. Dicho proceso se realizará en el segundo año de duración del contrato y, en caso de que sea objeto de dos prórrogas, en el cuarto año. Los entregables de esta fase incluirán: • Propuesta de acompañamiento
3.3 Zerbitzua emango duen taldearen osaera: Kontratuaren lote honen xede diren zerbitzuak diziplina anitzeko talde batek eman beharko ditu. Honela osatuko da:		**3.3 Composición del equipo de prestación del servicio:** Los servicios objeto del presente lote del contrato deberán ser prestados por un equipo multidisciplinar con la siguiente composición:

- Proiektuaren burua (koordinatzailea): • Eskatutako titulazioa: ▪ Zuzenbidean lizentziatua edo graduatua. • Eskatzen den gutxieneko esperientzia: ▪ Datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko 4 proiektutan gutxienez parte hartzea azken 3 urteetan.		- Jefatura del Proyecto (coordinador/a): • Titulación requerida: ▪ Licenciado/a o graduado/a en Derecho. • Experiencia mínima requerida: ▪ Participación en al menos 4 proyectos en materia de protección de datos y seguridad de la información en los últimos 3 años.
- SEN, IKT eta Zibersegurtasunaren arloko aholkulari tekniko-informatikoa: • Eskatzen den gutxieneko esperientzia: ▪ Informazioaren segurtasunaren arloko 4 proiektutan gutxienez parte hartzea azken 3 urteetan.		- Consultor/a técnico-informático en materia de ENS, TIC y Ciberseguridad: • Experiencia mínima requerida: ▪ Participación en al menos 4 proyectos en materia de seguridad de la información en los últimos 3 años.
Koordinazio-lanak honako hauek izango dira: Zarauzko Udalak emandako jarraibide orokorrak jasotzea, proiektuen gauzatzea koordinatzea, horien kalitate-maila egiaztatzea, proiektuen erantzukizuna hartzea eta egin beharreko lanen plangintzaz, jarraipenaz eta kontrolaz arduratzea.		Las labores de coordinación consistirán en recibir instrucciones generales por parte del Ayuntamiento de Zarautz, coordinar la realización de los proyectos, verificar su nivel de calidad, asumir la responsabilidad de los proyectos y encargarse de la planificación, seguimiento y control de los trabajos a realizar.
Lantaldeko kide bakoitzaren titulazioa eta gutxieneko esperientzia kontratazio-baldintza berezitzat hartzen da, eta hori ez betetzeak kontratua automatikoki suntsiaraztea ekarriko du.		La titulación y experiencia de cada uno de los miembros del equipo se considera como condición especial de contratación, cuyo incumplimiento implicará la automática resolución del contrato.
Lizitatzaileek esperientzia hobetu dezakete.		La experiencia podrá ser mejorada por quienes liciten.
Bai proiektuaren buruzagitza bere gain hartzen duen pertsonak, bai aholkulariak une oro ordezko langileak eduki beharko dituzte, eta horiek ere gutxienez titulazio eta esperientzia bera edukiko dute (gutxienekoa eta eskainitako osagarria).		En todo momento, tanto la persona que asuma la jefatura del proyecto, como la consultora deberán contar con personal sustituto que cuente, al menos, con igual titulación y experiencia (mínima y adicional ofrecida).
Kontratua indarrean dagoen bitartean taldearen osaera aldatzen bada, ziurtatu beharko da aipatutako baldintzak (titulazioa		En caso de cualquier cambio en la composición del equipo durante la vigencia del contrato, se deberá asegurar el cumplimiento de las

eta gutxieneko esperientzia) eta eskainitako esperientzia gehigarria betetzen direla. Nolanahi ere, aldaketa hori aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Zarauzko Udalari, eta haren berariazko baimena izan beharko du.		precitadas condiciones (titulación y experiencia mínima) y de la experiencia adicional ofrecida en la correspondiente oferta. En todo caso, deberá notificarse dicho cambio previamente al Ayuntamiento de Zarautz y contar con su autorización expresa.
Esperientzia egiaztatzeko, erakunde eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko dira: informazioaren segurtasunaren arloko proiektuan parte hartzen duen pertsonaren nortasuna, eta horren epea.		La experiencia se acreditará mediante certificado emitido por la entidad competente, en la que se haga constar, al menos, los siguientes extremos: la identidad de la persona participante en el proyecto en materia de seguridad de la información y período comprendido.
5. BALDINTZA OROKORRAK		**5. CONDICIONES GENERALES**
5.1 Dokumentazioa		**5.1 Documentación**
Lanak egin bitartean sortutako dokumentazio guztia PDF formatuan eta/edo beste formatu estandar batean entregatuko da.		Toda la documentación generada durante la realización de los trabajos será entregada en formato PDF y/u otro formato estándar.
Era berean, enpresak Udalari ematen dion dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo da, barneko lan txosten edo dokumentuak izan ezik, horiek gutxienez euskaraz idatzi beharko baitira.		Asimismo, toda la documentación que entregue la empresa al Ayuntamiento deberá estar redactada en euskera y castellano, salvo los informes o documentos internos de trabajo, que deberán redactarse al menos en euskera.
Zabalpen handiko dokumentuetan berariaz zainduko dira euskararen zuzentasuna eta egokitasuna		En los documentos de gran difusión se velará expresamente por el uso correcto y adecuado del euskera.
5.2 Bilerak		**5.2 Reuniones**
Zereginak garatzeko, gutxienez bilera hauek egin beharko dira: - Proiektua abiarazteko hasierako bilera (kontratua formalizatu eta gehienez ere 15 eguneko epean). - Hiru hilean behin, jarraipen-bilera bat.		El desarrollo de las tareas requerirá las siguientes reuniones mínimas: - Reunión inicial de arranque del proyecto (en el plazo máximo de 15 días desde la formalización del contrato). - Una reunión trimestral de seguimiento.
Udalak berariaz eskatuz gero, enpresa adjudikaziodunak *in situ* asistentzia eman beharko du.		La empresa adjudicataria deberá presentar asistencia *in situ* en caso de requerirse de modo específico por el Ayuntamiento.